

...eta

Kitto!

898 zkia.
2014-IX-5



**Arrateko
zelaia
musikaz blai**

**matrikula
zabalik**

2014/15 EUSKARA IKASTAROAK

EUSKALDUNTZE OROKORRA
(aurrez aurrekoa edo autoikaskuntza)

XEDE BEREZIKO IKASTAROAK
(aurrez aurrekoa)

- 1. / 2. / 3. (EGA) eta 4. mailak
- Hizkuntza eskakizunak: IVAP, Irale, Osakidetza

Sostoa 1, 1. solairua Telefonoa: 943 201 379

eibar@aek.org





Arrate Gaina, 4 279 Postakutxa
943 121 262 943 127 334

KANTABRIA Jatetxea

*Aukera edozein
ospakizuretarako*



ARRATEKO SANTUTEGIAREN
ondoan aurkitzen gara

*Ezkontzak, jaunartzeak,
bataioak, urrezko ezkontzak,
zilarrezko ezkontzak,
karta, enpresa bazkariak...*



kantabria@kantabriajatetxea.com

www.kantabriajatetxea.com

MGEP

MONDRAGON GOI ESKOLA POLITEKNIKOA
JOSE MARIA ARIZMENDIARRIETA S. COOP

MATRIKULA ZAITEZ

Fabrikazio Mekanikoko Diseinua

Robota diseinatzen dute

Fabrikazio Mekanikoko Produkzioaren Programazioa

Robotaren atalak eta piezak fabrikatzen dituzte

Sareko Informatika Sistemen Administrazioa

Robotaren hari gabeko komunikazioaz,
ordenagailu muntaiaz eta sistema
eragileen instalazioaz arduratzen dira

Automatizazioa eta Robotika Industrialia

Robotari autonomia ematen dioten elementuak instalatu
eta programatzen dituzte

Sistema Elektrotekniko eta Automatizatuak

Robotaren instalazio elektriko eta elektronikoaz
eta energiaren hornizioaz arduratzen dira

Lanerako
Gertu!



www.mondragon.edu/gmhz

ASTEAN ESANAK

"Euskara, sexu marka apenas biltzen duen hizkuntza izanik, baliagarriagoa izan liteke generoen binarismotik ihes egiteko. Ez badugu hain markatua zer den gizonarena eta zer emakumearena, genero errepresentazio hertsietatik ihes egitea errazagoa izan liteke, eta gizon edo emakume sentiitzeko modu ezberdin horiek guztientzako aterpe izan liteke euskara. Territorio libreago bat, zentzu guztietan"

(ARANTZA SANTISTEBAN, HISTORIALARIA)

"Egungo Japoniako konstituzioa ez da japoniarrek egindakoa, II. Mundu Gerra amaitzean, AEB-ak ezarria baizik; hortik dator, neurri batean, hura zehazki emendatu ordez 'irakurketa' bitxiak egiten jardun beharra. Testuaren 'amak' ez ikusiarena egiten du, haietatik erator litekeena mesedegarri zaiolakoan"

(MIKEL ARAMENDI, KAZETARIA)

"Frantziako irratietan kanpoko musika ipintzeak bere mugak ditu eta derrigortuta daude musika frantsesa eskaintzera gutxienez %40an. Kanadan kopuru hori %60a iristen da eta Brasilen %70era. Gurean, Euskadin, kopuru horrek ez du %5 gaintzen"

(GONTZAL MENDIBIL, ABESLARIA)

"Artisten %90 eta publikoa ados daude gauza guztietan. Hori tragikoa da. Ez dago, esaterako, orden publikoaren alde egingo duen artistarik. Askatasun arazoa dago hor: jendea aurre egiteko kemenik ez izatea"

(ALBERT BOADELLA, ANTZERKIGILEA)

Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera

KARABIXA.- Karobia, karea egiteko labea. "Nola kare-harrira dan gehixena gure mendixetan, karabixak ziran ugari".

KARAKOTE.- Kakoa. Gaztelera 'gancho'. "Karakote batekin jatxi eban adarra okaranez betetakua".

KARATXO!- Nahigabea adierazteko interjekzioa. "Karatxo! ez desta ondo urten gauza onetxek!".

eskutitzak

ESCRIBANO JAUNA ETA FRACKING-A

Askok jakingo dute sinadura bilketa handi batean murgilduta dagoela Fracking Ez Mugimendua. 30.000 lortu behar dira, irailean Legebiltzarrean Proposamen Legegilea aurkezteko.

Kontua da Deba Bailara guztian oso arrakastatsua izan dela sinadura-bilketa, Eibarren izan ezik. Eibarren Pedro Escribano zinegotziarekin egin dugu topo. San Juanetan, Untzagan mahaia jartzeko baimena eskatu genuen udalean. Ezetz borobila eman zigun. Bere plazan eta bere herriko festetan ez omen dago lekuri horrelako errebinkazio politikoetarako. Gainera, Eibar fracking gabeko herria omen da dagoeneko, udalba-

tzaren erabakiz. Azaldu genion inon ez dutela eragozpenik jarri mahaia jartzeko, proposamen legegilea zer den ere bai, eta Eibarko herritarrek eskubidea dutela sinaduraren bidez iritzia emateko, baina alperrik.

Uztailean Arrate Egunean santutegi inguruan mahaia ipintzeko baimena eskatu genuen. Erantzuna, lehengo berbera. Ba jakin dezala Escribano jaunak, San Juanetan egin genuen bezala, Arraten ere topatuko dugula sinadurak biltzeko lekua eta modua.

Fracking Ez, ez hemen eta ez inon!!!

MARITXU GOIKOETXEA ETA ARANTZA PALACIO
(FRACKING EZ MUGIMENDUAREN IZENBAN)



Euskara Elkartea

ARGITARATZAILERA: ...eta kito! Euskara Elkartea. **HELBIDEA:** Urkizu, 11 - solairuartera. 20600 Eibar

TELEFONOAK: 943 20 67 76 / 943 20 09 18. **FAXA:** 943 20 28 72.

Astekariaren E-MAILak: erredakzioa@etakitto.com / komunikabideak@etakitto.com /

publizitatea@etakitto.com **Elkartearen E-MAILak:** elkarte@etakitto.com / normalizazioa@etakitto.com

ERREDAKZIO-KONTSEILUA: Itziar Albizu, Maider Aranberri, Jose Luis Gorostegi, Silbia Hernandez, Koldo Mitxelena. **ADMINISTRAZIOA:** Marisol Uriarte. **KOORDINATZAILERA:** Koldo Mitxelena.

ERREDAKZIO-BURUA: Silbia Hernandez. **DISEINUA ETA MAKETAZIOA:** Jose Luis Gorostegi.

ARGAZKI ARLOA: Leire Iturbe eta S. Hernandez. **HIZKUNTZA ARDURA:** Juan Andres Argoitia eta Maider Aranberri.

PUBLIZITATEA: Itziar Albizu eta Belen Ulazia. **Tfnoa:** 943 20 67 76. **AZALEKO ARGAZKIA:** J.L. Gorostegi

BANAKETA-ARDURADUNA: Ainhoa Luz. **TIRADA:** 8.150 ale. **INPRIMATEGIA:** GERTU koop. (Oñati).

COPYRIGHT-A: ...eta kito! **LEGE-GORDAILUA:** SS/430/92. ISSN: 1132 - 1679

("...eta kito!" ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik)



EIBARKO
UDALA



GIPUZKOAKO
FORU
ALDUNDIA



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
(HIZKUNTZA POLITIKARAKO
SAILBURUORDETZA)

Eibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria

Etixerik etxeko zerbitzuaren "pribatizaziñua"

EH Bilduk idatziz adierazi dabenetz, "udaleko etxerik etxeko zerbitzuko bihargiñak erretiratzeko doiazeko neurrian zerbitzua sosiguz-sosiguz pribatizatzen doiala" salatu nahi dau. Gure herrixa horrelako zerbitzuetan Euskal Herri maillan aitzindarixetako bat izan zala gogoratziarekin batera, "oin dala gitxira arte fundaziño publiko baten bittartez zerbitzuaren kudeaketa zuzena" udalak eruan dabela diñue:

"Sasoi batian zerbitzuak bihargin profesional asko zittuan, 40 bat, baiña azken aldixan gero eta gitxiago dagoz eta Udalak enpresa pribatu batekin subkontratatzia erabagi dau. Kudeaketa zuzenak zerbitzuaren kalidadiaren kontrol hobia eta haundixagua eukitzeko aukeria emoten dau, baiña hasierako bihargiñeri eutsi edo ordezkatu biharrin fundaziñua pixkanaka desagertzen juan da. Udal garbiketa zerbitzua-



rekin be antzerako zeozer gertatzen ari dala gogorarazi nahi dogu". Zerbitzua "gutziz publikua" izan biharko leukiala az-

pimarratzen dabe eta udal gobernari "zerbitzuaren kostutasen berrikuste sakona" egittia eskatzen detse.



Tribual euskarazko jokua

CodeSyntax enpresiak bere lehen aplikaziño mugikorra merkaturatu dau udan: Tribual euskarazko jokua. Android plataforman garatuta dagan aplikaziñua telefonuetan eta tabletetan duan eta Google Play-ra sartuta oso modu errazian instalau leike. Sortzailiak diñuenetz, "oso mekanika erreza dauka eta, bakarka jokatzen dan arren, partida baxotxa lagun biri bidaltzen jako, beraz baxotxa lehia osagarri bat be. Bost galderako sortak erantzutia da koxka, ahalik eta azkarren". Edozelan be, jokua zelakua dan jakin nahi dabenak, onena probatzia daka.

Ustekaberen uda betia

Urtero lez, Ustekabe fanfarreko gaztiak batetik bestera euren musikia han eta hamen eskintzen pasau dabe udia. Uztaillian, bestiak beste, Ermuko Santixauetan eta Elgetan egon ziran. Eta abuztuan Amurrion, Zarautzen jaixetako txupinazuan, Elgoibarren,

Oliten Goesbari egindako omenaldixan eta Bilboko jaixetan konparsekin batera jardun eben. Eta kanpora juan barik be, Eibarren bertan, Eibar eta Errealaren arteko derbixaren aurretik kaliak musikarekin girotzen ibilli ziran fanfarreko kidiak.



Eibarko fanfariaren partaidiak Zarautzeko jaixetako txupinazuan be izan ziran.



MANU FERNANDEZ GOIKOETXEA

(2014ko abuztuaren 4an hil zen, 46 urterekin)

Familiaren izenean, eskerrik beroena gure nahigabeen lagundu diguzuen guztioi eta hileta-elizkizunera juan zinetenoi.



"Enneco haritzaren memoria" aurkezten

Datorren astian, eguaztenian, Patxi Abasolo eta Vicente Azpilikuetak hitzaldixa emongo dabe Arrate Kultur Elkarte, 19.00etatik aurrera, Etxarri Aranatzan eraikitzen ari dan "Enneco haritzaren memoria" museuaren aurkezpena egitteko. Memorixaren, kulturiaren eta historiaren parkia izango dana Etxarriko basuaren barruan preparamen dabilta eta parkiaren irudixa izango dan eskultura oin dala gitxi hil dan Nestor Basterretxeak sortutakua da. Presentaziñua ekaiñian egittekoa zan, baiña hainbat arrazoiengaittik bertan behera geratu zan.



Nestor Basterretxeak sortu eban Enneco-rendako eskultura.

Etxeberria New York eta Madrillen

Roberto Lopez Etxeberria diseinadore eibartarrak "Pura Piel" 2015eko udaberri/udarako bilduma barrixa erakutsiko dau New Yorke, Mercedes-Benz NY Fashion Week dalakuaren barruan, domekan sail ofizialian eskinduko daben desfilian. Ameriketako pasarela garrantzi-



tuenaren gaiñian ikusiko diran diseinua ikusiko diran diseinua ikusiko diran diseinua ikusiko dira eta hórretzek egitteko batez be narua erabili dau. Eta datorren astian bertan, hillaren 13an Etxeberriak emakumiendako bakarrik sortutako lehen koleziñua ikusteko aukeria egongo da, Madrillen egingo dan Mercedes-Benz Fashion Week Madrid izenekuaren barruan eskinduko daben desfilian.

autuan

GURE ESKU DAGO

Arrate egunian hillebete bi beteko dira erabagitzeko eskubidiaren alde giza-kataia osatu zala, Gure Esku Dago herri ekimenak deittuta. Eibartik Bergarara juanda milla lagun baiño gehixagok parte hartu ebala-eta, astelehenian Arraterara igotzen diranak Gure Eskuren kamisetia, zapixa eta bestelakuak jantzitta eruatera animau nahi dittue San Blas Zati bat Eibarko taldekuak.



1959-XAN JAIXOTAKUAK

Urte horretan jaixotakuendako bazkarixa antolatu dabe urrixaren 25erako Ixua jatetxian. Bertan parte hartzeko 70 euro sartu biharko dira Ibarcurtzeko Sabadell-Guipuzcoano bankuan (IBAN ES52 0081 4326 66 0001118216). Aittatutako egun horretan, bazkaldu aurretik, Untzagan, udaletxe parian batuko dira parte-hartzailliak, 12.00xetan.



**EIBARKO
HIZKUNTZA ESKOLA
OFIZIALA**

Jardiñeta, 3
20600 Eibar

2014/2015
MATRIKULA OFIZIALA
Irailaren 1etik 18ra

ALEMANA, EUSKARA,
FRANTSESA eta INGELESA

MATRIKULA EGITEKO:

www.eoieuskadi.net

ARGIBIDE GEHIAGO: **www.eoieibarheo.net**
943.20.06.48

liandco.es

umeen online
arropa denda



10KITTO
KODEA
erabilita,
%10eko
deskontua



asteko

2.261
datua

langabetu eguazen
abuztuan Eibarko
Lanbideren buleguan
izena emonda,
eta langabezi-tasa
%17'5kua zan; hórretatik,
1.034 gizonak (%15'1)
eta 1.227 andrak (%20'2).

Oiñezkuendako pasabide goratuak

Abuztuaren bigarren hamabostaldixan herriko hainbat kaletan zebrabidiak konponzeko biharrian hasi ziran: oiñ arteko moduan oiñezkuendako pasabidiak errepidian margotuta eguazen tokixetan, errepidian bertan altueria emon eta pasabide goratuak egittiari ekin detse, "holan gidarixak derrigorrez abiadura murriztera behartzeko". Neurri horrekin mugikortasun gitxi dakenak eta, orohar, oiñezkuak, bidia errazago pasatzia lortu nahi dabe. Urkizu aldiari hasi dira biharrian eta danera hamar bat tokittan konponduko dittue pasabidiak: Karmen eta Barrena kalien arteko bidegurutzian; Bidebarrieta eta Urkizu bat egitten daben tokixan (Urkizu, 1ian); Aldatze kalian (ikastetxiaren urteeran); San Kristobal ka-



Urkizu aldiari hasi badira biharrian be, danera hamar bat tokittan konponduko dittue pasabidiak. SILBIA HERNANDEZ

leko 21ian; Otaola hiribidian (tanatorixuaren aldamenian); Urkizu kaleko 22xan (Agiñaspi tabernaren parian); Jardíñeta kaleko 1-3an eta Urki kaleko 16xaren ostian. Biharrak hiru astetan amaittuta egotia dago aurreikusitta eta 78.505 euroko aurrekontua dake.

Jabetze Eskolaren ikastaro barrixak

Gure herriko Jabetze Eskoliak udazkenerako preparau dittuan ikastaro barrixetan izena emoteko epia zabalik dago (matrikulak Pegoran egin bihar dira). Hill honetan hasi eta abendura bittartian

zortzi ikastaro eskinduko dittue, bakotxa gai baten inguruan: "Nire emozioak eta ni, aurkitzeaz dugun mundua II", "Berdintasun harremanak eta tratu ona", "Debekatutako hiriari argazkiak ateraz", "Zuri zer kontatu dizute feminismoari buruz?", "Txalaparta", "Gure gorputza eta osasuna: nola bizi hilerokoa?", "Autodefentsa feminista" eta "Baliabide bezala barrea". Ikastaro bakotxaren inguruko informaziño zihetza Eibarko udalaren webgunian eskuratu leike edo, bestela, Andretxean galdetu (943700828 telefonora deittuta edo andretxea@gmail.com helbidera idatzitta).



DYAren ikastaroa

Bihotz biriken suspertzia eta kanpoko desfibrilagaillu automatikuak zelan erabili ikasteko kursua antolatu dabe DYA alkartekuak. Klasiak Eibarko ordezkartzan (Pagaegi, 5) emongo dittue, iraillaren 8xan eta 9xan, 18.30etatik 21.00etara eta irakasliak DYA Gipuzkoako Unibersidadeko erizain diplomatuak izango dira. Matrikuliak 90 euro balixo dau eta proba teoriko-praktikuak gairidituz gero, ikastarua gairiditu dabela ziurtatzen daben ziurtagirixa jasoko dau ikasliak. Ikastaruan, bestiak beste, bihotz biriken geldialdixa identifikatzen, oiñarrizko bihotz-biriken suspertze (BBS) mugimenduak burutzen eta KDA (kanpoko desfibrilagaillu erdi-automatikuak) erabiltzen erakutsiko dabe.

Berreibar, AuzoLab-erako hautatua

Donostia 2016tik sustatutako AuzoLab herritarren hibridaziño laborategixetako batian parte hartzeko aukeratu dabe Berreibar alkartiá. Kolektibo baten premiña zihetz bateri erantzuteko pentsautako laborategixak Donostiako Conexio-



nes Improbables-ek antolatu eta gidatzen dittu eta, deialdi publikuan hautatuak izan eta gero, Berreibar alkartekuekin batera Amarabai Amarako auzo alkartekuak hartuko dabe parte hill honetan martxan ipiñiko diran lantaldietan.

ARRATEKO AMAREN JAIAK irailaren 2014 7, 8 eta 14an



antolatzailea:
**EIBARKO
UDALA**

laguntzaileak:
ANDIRAO ELKARTEA
...ETA KITTO!
BETIKUAK
EIBARKO KLUB DEPORTIBOAK
KEZKA DANTZA TALDEA



8.050 ALE, 825 BAZKIDE

...eta kitto!
ko
bazkide izan nahi dut



urteko kuota

- 16 urtetik behera
5 euro
- Lanean dihardut
45 euro
- Langabea, ikaslea,
jubilatua, etxekoandrea
15 euro
- Borondatez, diru
gehiago eman nahi dut
..... **euro**

...eta kitto! Euskara Elkarte
Urkizu 11, solairuartera, EIBAR. Tel.: 943 20 09 18
elkartea@etakitto.com

Izen-abizenak: _____
Herria: _____
Helbidea: _____ e-maila: _____
Telefonia: _____ Jaiotze data: _____
Lanbidea: _____
Kontu zenbakia (20 digito): _____

Asier Serranoren 3 diskoak



"Ez Esan Inori"



"Gerrari bai"



"Hoteleko kantuak"

*10 eurotan
...eta kitto-ko
bulegoetan*

Arzallus, Lujanbio, Egaña eta Lizaso kantari Kantabrian

Aurten 22. edizioa betetzen du 1993an sortutako tradizioak. Orduko hartakoan, Juan Mari Narbaiza eibartarrarekin batera, Peñagarikano izan zen: jakina, urterotertero kale egin ez duten Lizaso eta Egañarekin batera. Aurten, bestalde, aipatutako biekin Amets Arzallus txapelduna eta

Maialen Lujanbio txapeldunohia izango dira. Ezin da, beraz, kartel osotuagoa egin gaur egungo bertsolarien munduan: lauron artean Euskal Herriko zazpi txapel lortu dituzte (lauk, jakina, Egañaren burua estali zuten). Gainera, eurak dira (batean kenduta, Lizasoren atzetik Lopategik irabazi baitzuen txapela)



Gero eta gazte gehiago izaten da bertso-afarian, adi-adi. LEIRE ITURBE

azken zortzi txapelketetan nagusitu direnak. Hortik aparte, plaza gehien egiten dituztenen artean daude, jakina.

Maila goreneko laukotea

Egaña-Lizaso tandem-arekin batera, Arrate bezperako bertso-jaialdian Gregorio Larrañaga "Mañukorta", Maialen Lujanbio, Angel Mari Peñagarikano, Amets Arzallus eta Sus-trai Kolina dira gure artean gehien izan direnak. Gai-jartzaileren artean ere, Asier Ibaibarriagak seigarren urtea beteko du aurten, Rafael Zubizarretaren lekukoa hartu eta gero. Berak gidatuko duen saioari gatz eta piper guztia ateratzen saiatuko dira bertsolariok, hain ospetsu eta ohiko bihurtu diren "segidilla" eta antzerakoekin. Ordurako sabela ondo beteta izango duten ikus-entzule guztien gozamenarako izan dadila!



laz izan ziren hiru bertsolarik errepikatuko dute aurten, Amets Arzallus txapeldunarekin batera. LEIRE ITURBE

eitek
SOLUCIONES TECNOLÓGICAS

Marka onenetakoen Zerbitzu Tekniko onena

www.eitek.net

GATE
English School

LOREA HERNANDEZ ARIZAGA
INGELES FILOLOGIAN LIZENTZIATUA

Ibarkurutze, 4 - 1. ezk. 605 716 717

Ketesa 2010 *bulego eta kolektibitaterako instalazio osoak eta materiala*

altzariak, aulkiak, manparak, liburutegiak...

bulego materiala enpresetan banatzen dugu

www.ke2010.com
info@ke2010.com

Jaietan ere solidario izateko aukera

Arrate bezpera domeka izan arren, jaia egun bat aurretik hasi nahi duenak horretarako aukera izango du. Izan ere, zapatu gauerako DJ jaialdi berezia antolatu dute Munchmeyer gaitza dutenei laguntzen dien Bizimina plataformakoek: Bizimina Mendi Elektro Jaia.

22.00etatik aurrera zelaia musikaz betetzeko asmoa daukate: Pantaka (Zarata System), Piper (Zarata System), Oxide aka Manu, Gurru, Bolitxe eta beste batzuk zelaia girotzen ibiliko dira eta, bien bitartean, plataformako kideek txosnan ogitar-tekoak eta edariak saltzen egongo dira. Azken urteotan egindakoaren bidetik, horiek saltzen batzen duten dirua elkarteak gaixoei laguntzeko gartzen dituen jardueretan erabiliko dute.

Parrilada Arrate egunean

Eta jaia aprobetxatuta, Eibarko EAJ-PNVk ekimen solidarioa antolatu du Arrate egunerako, ELA gaixotasuna dutenei laguntzeaz arduratzen den ADELA Euskal Herria erakundearekin laguntza emateko asmoz. Eva Juez bozeramaile jeltzaleak azaldu duenez, "parrilada



DJ jaialdi berezia antolatu dute zapatu gauerako.

solidarioa eguerdiko 12.00tan ospatuko da Arrateko zelaian. Karlos Ibarrondo parrilero profesionalak egindako Euskal Baserriko Lumagorri Eusko Label-dun oilasko izter pintxoak eskainiko dira 2 euroren truke, eta nahi duenak ere sagardo kupela edota ura edan ahal izango du".

Azaldu dutenez, "uda honetan berba asko egin da ELA gaixotasunari buruz martxan jarri den sentsibilizazio kanpainaren inguruan, baina badirudi erakundeek ez dutela espero bezalako babes ekonomikorik jaso. Horregatik, Eibarko EAJ-PNVk ekimen

solidario honen bitartez erakundearekin lagundu nahi dio".

Ekimen solidarioa abian ipini ahal izateko lantaldea osatu dute: "Alderdikide eta buruki-deek parte hartu eta lan egingo dute barraren beste aldean eta, horrez gain itsulapikoak ere ipiniko dira nahi duenak ekarpenak egin ditzan. Irabazi guztiak, gaixoen bizi kalitatea hobetzeaz eta laguntza eskaintzeaz arduratzen den, ADELA Euskal Herria erakundearentzat izango dira". Jeltzaleek eibartar guztiak ekimenarekin bat egitera animatu nahi dituzte, "gaixo dauden guztiei laguntza eman eta babesa erakusteko".



Karlos Ibarrondo parrilleroak hartuko du parte Arrate egunean.



Juan Gisasola, 5 -EIBAR-
943 20 39 59
www.linkidiomas.com

- INGELESA
- FRANTSESA
- ALEMANA

UME, GAZTE ETA HELDUENTZAT
TALDE MUGATUAK
BAKOITZARI EGOKITUA
ERREKUPERAZIOAK, ESKOLARAKO LAGUNTZA
CAMBRIDGE AZTERKETETARAKO PRESTAKETA.
MAILA GUZTIAK

Cambridge ESOL Exam Preparation Centre

"Tiro Pitxon Jatetxea" ARRATE





Terraza ederra
bista paregabeekin

Eguneko menua
Menu bereziak
Ezkontzak, Bataioak
Karta, ...

943 20 88 59

Musika-egarria asetzeko moduko kontzertua

Jaixak Herrixak Herrixandakok antolatuta, Ernai, Sortu, Eibarko Sare, Bizimina eta Eibar Rugby Taldearen laguntzarekin, Arrate egunaren bezperarako egitaraua goizetik hasiko da: domekan goizeko 11.00etan Arratera igo nahi dutenak Eibarko Bizikleta Plazan ("Galerosen") batuko dira eta eguerditik aurrera, 13.00ean trikipoteoa hasiko da. Geroago, 15.00ak aldera, zelaian bertan herri bazkaria hasiko da eta iluntzeko 20.00etan, berriz, kontzertuen txanda ailegatuko da, gaur egun benetan arrakastatsuak diren hiru talderekin: Los Zopilotes Txirriaos, Zea Mays eta Las Tea Party. Bata bestearen atzetik, mundu guztia kantuan eta dantzan ipintzeko prest igoko dira oholtzara. Argi ibili, antolatzaileek hasiera ordua aurreratu dutelako (hasiera batean 21.00etan hasitekoak ziren) eta puntual hasiko direla azpimarratu dute.

Nafarroko rantxerak

Karrerilla hartuta ailegatuko dira Los Zopilotes Txirriaos taldekoak Arratera, udan han eta hemen kontzertuak ematen ibili eta gero, asteburu honetan egunero emanaldia izango dute: gaur Ziordiko jaietan, bihar Bakedanon eta etzi Arraten jo-



Mexiko aldeko rantxerei oso ikutu berezia ematen diote Nafarroako musikariek.

ko dute. Sasoi batean Kojon Prieto eta Los Huajalotes taldeak egiten zuenaren bidetik, hauek ere napa-mex erako musika jorratzen dute. Taldeak eskaintzen duen musikaren sus-traietan Mexiko aldeko rantxerak daude, baina horiek "Nafarroako ardo goxoz busti" eta gero, nahasketaren emaitza "kantu alai eta festazaleak" direla diote. Zopilotes Txirriaos taldeak disko berria kaleratu du, "Salutxita", eta lana osatzen duten abestiak zuzenean entzuteko aukera paregabea izango dute Arratera igotzera animatzen direnek.

Zea Mays

Hiriburuz hiruburu hasitako bira txikian areto guztiak betetzea lortu eta gero, Zea Mays talde bilbotarrak bere lan berria ezagutzera emateko birarekin aurrera jarraitzen du: "Da", taldearen estudioko zazpigarren diskoa, hamairu abestirekin osatutako lana. Taldeak berak argitaratu du lan berria bere zigiluarekin eta 'Era' (Bonberenea Ekintzak) disketxearen babesean kaleratu zuten diskoaren jarraipen moduko delat esan daiteke. Azken

lanetan bezala, Jose Lastra izan da estudioko soinu teknikaria, baino honakoan, lehen aldiz, ekoizle bat izan dute grabazio saioetan: Dave M. Allen musikari eta teknikaria. Bera arduratu da diskoaren nahasketaz, Londreseko Club Ralph estudioetan.

Las Tea Party Dj's

Musika elektronikoaren munduan luzaroan bakarka ibili eta gero, Las Tea Party Dj's musika proiektu berria 2010. urtean sortu zen Eva Gutierrez (La Cuisine) eta Lorea Argarate (Flow) batzean. Musika oso anitza eskaintzen duen bikotea osatu dute (Funkya, Electroswing, Drum n' Bass, Dubstep, Moombahton, Moombahcore, el Brosstep...) eta, beraz, ez zaie zaila egingo zelaian batutako guztien gustuak asetzeko moduko saioa eskaintzea.



Oso musika estilo anitzak eskainiko dituzte Las Tea Party disko jartzaileek.



AIORA RENTERIA (Zea Mays):

"Indarrez beteriko kontzertua eskainiko dugu"

- **Nolako uda ari da izaten? Kontzertu asko ematen zabilzate?**

Uda potentea izan dugu eta oraindik jarraitzen du! Euskal Herriatik ibili gara jotzen, oportetarako ere denbora pixka bat izan dugu eta uda amaiera interesgarria ere badaukagu! Udazkena ere topera daukagu eta Berlin, Bartzelona eta Madrilera joateko aukera izango dugu, besteak beste.

- **Arrate ezagutzen duzue, ezta? Orain dela urte batzuk bertan jo behar zenuten, baina euria botatzen hasi eta bertan behera geratu zen kontzertua, gogoan daukazu?**

Bai noski! Aurreko kontzer-

tuan, euri mordo egin zuen, kontzertuaren erdi-erdian. "Elektrizitatea" abestia jotzen genuen bitartean gelditzeko eta eszenatokitik azkar jaisteko esan ziguten. Argindarra kendu zuten eta orduan ikusi genuen nola eszenatokiko argindarraren kutxan ur litroak eta litroak sartzen ziren, beraz kontzertua bertan behera gelditu zen...

- **Oraingoa nolako kontzertua emateko asmoa daukazu? Zerekin espero duzue topogitea?**

Oporretatik bueltan gaude eta jotzeko irrikitan! Beraz, indarrez beteriko kontzertua eskaini nahi dugu, ondo pasatu, dantzatu, barre eta negar egiteko aukera ematen duten kontzertu horietako bat.

- **Hamaika tokitan ibilitakoak zarete, alde handia dago Arraten moduan zelai batean kontzertua eman ala toki itxi batean eman? Zertan?**

Toki itxi batean kontzertu in-timo bat egiteko aukera dau-



Urteetan arrakastarik arrakasta dabil Zea Mays taldea.

kazu, hori da alderik nabarmena, baina Arrateko moduko zelai handi batean jotzea gozada bat da, indar gehiago eman behar diozu denari publikoa zureganatzeko.

- **Aurtengo jaietako kartelean zuekin batera Zopilotes Txirriaos eta Las Tea Party daude. Aurretik elkarrekin jo duzue?**

Nolakoak dira?

Ba juergarako eta ondo pasatzeko talde ederrak dira biak, Zopilotes-ekin aspaldi jo genuen eta Las Tea Partyrekin pare bat aldiz egin dugu bat. Plazer bat da eurekin egotea eta are handiagoa Arraten errepikatzea, espero dugu aurt-en euri gabe izatea!

"Beste biak ere juergarako eta ondo pasatzeko talde ederrak dira"

info@gerritek.net
www.gerritek.net

SOLUZIO INFORMATIKOAK:

- Marka guztietako zerbitzu tekniko eta salmenta
- Neurria egindako software-aren garapena

ASUS
DELL
hp
SAMSUNG
TOSHIBA
Leading Innovation >>>

Gerritek
INFORMATIKA

Txaltxa-Zelai, 4-6
Tel: 943-033892 / Faxes: 943-031521

Iraxte
Belardenda

MIKAITZ belardenda zena berriro zuekin IRATXE belardendan ONDO PASA ARRATEETAN!

SAN AGUSTIN, 5
943 530 361
Belardenda

Iraxte

Ezpata-dantzak Arratetik Frantziara eta buelta

Kezka dantza taldeko hamar dantzarik Arrateko Amaren ezpata-dantzak Frantziaraino eraman dituzte aurtengo udan, nazioarte mailan egiten diren folklore jaialdi handietako batera. Izan ere Confolens herrian ospatzen den jaialdi entzutesuan aurten Euskal Herriko dantza eta musikei gualdi bat, inaugurazio ekitaldia, eskaini diote eta Argia dantzari taldearen zuzendaritzapean 80 musikari, dantzari eta laguntzailek, tartean Kezkako hamar dantzari, euskal dantzen ikuskizuna eskaini dute.

Abuztuaren 12an Theatre

des Ribieresen eskaini zuten euskal dantzen emanaldian parte hartzen egon ziren Kezkako dantzariak Miren Hazas,



Joanes Plazaola, Luken Aranburu, Endika Arrillaga, Maite Gonzalez, Maitane Fariñas, Enrike Izagirre, Ainhoa Larrañaga,



Urbeltzek zuzendutako ikuskizunean Arrateko ezpata dantzek bere tokia izan zuten.

Josu Garate eta Oier Araolaza dira eta Vienne ibaiaren ertzean antolatzen den karpa erraldoian 3.000 ikusleren aurrean

dantzatu zuten, 200 metro kartratuko eszenatokian. Juan Antonio Urbeltzen zuzendaritzapean Argia taldearen Besta Berri eta Axeri Boda ikuskizunetako zenbait atal eskaini zituzten euskal dantzariak eta ikuskizunaren lehen zatian ezpata-dantzak izan ziren protagonista. Izan ere, Iruñeko San Fermín Aldapakoa eta Arrateko ezpata-dantza oinarritzat hartuta Argiak prestatutako saioa izan zen.

Guk ez dugu urrutira joan beharrik izango, baina, Arrateko ezpata-dantzekin gozatu ahal izateko. Urteroko moduan, Arrate egunean meza nagusian eta ondorengo prozesioan parte hartzen izango dira Kezkako dantzariak eta, hori amaituta eta jarraian, 12.30etan zelaian dantzatuko dute. Eta Arrate egunean joaterik ez duenak, lasai, hilaren 14an Kofradia egunean berriz ere dantzatuko dituzte eta.



Arrate zein Kofradia egunean Kezkako dantzarien saioarekin ederto gozatzeko aukera izango dugu aurten ere. LEIRE ITURBE



MUGICA
ITURGINTZA

AIRE EGOKITUA, ITURGINTZA,
GASAREN INSTALAZIOA, KALEFAKZIOA,
PETROLIO-PRODUKTUAK, BAINUEN
ERREFORMAK ETA ABAR...

HANSGRÖHE KANILEN BANATZAILEA
ZORU ERRADIATZAILEA
EGUZKI-ENERGIA

Egiguretarren, 18
Tel. 943 20 10 30 - Faxa. 943 20 72 24



Radio Eibar

CADENA
SER

104,0 FM



LORADENDA

- Lora eta landare natural eta lehorrak
- Ezkontzetarako lorak

San Juan, 1 Tel. 943 20 33 29

Hamaika sari KITTONBOLAren 11. urtean

Hasi buruari bueltak ematen ia topatzen duzun orain dela hamaika urtetik prezio bera duen zerbeit. Ez zai-zula ezer okurritzen? Ba kittonbolako txartelak!

2003. urtean txartela euroan ipini genuen eta orduetik hona prezioari eustea lortu dugu. Euro baten truke afariak, telebistak, DVDak, urdaiazpikoa, gazta, otarrak, argazki kamarak, lora zentroak, alkondarak, poltsak, erlojuak, motxilak, tabletak, zapatak, erosketa baleak, txuletak, ardo botilak... eta beste milaka opari etxera eraman ditzakezu.

Maiatzetik ari gara ondorengo orrietan topatuko dituzun denda, enpresa eta erakundeekin lanean. Euren parte-hartzeari esker Kittonbola! opariz beteta topatuko duzue Arrateko eliza parean, goizeko 10:00etatik aurrera zabalik.

Baina zuen, herritarron, parte-hartzea ere ezinbestekoa dugu gure proiektuekin aurrera egiteko. Kittonbola! moduko ekimenetatik lortzen



SILBIA HERNANDEZ

dugun dirua Eibarren euskararen alde lan egiteko erabiltzen dugu: urteko programa aurrera eramateko ezinbestekoa dugu. Ezingo genuke, bestela, Txikitto!, Berbetan, Gurasoak Berbetan, Bertso paper-lehiaketa, Ipurterre ipuin lehiaketa, ...eta kitto! aldizkaria, euskararen transmisioari buruzko mintegia, hitzaldi soziolinguistikoak, ikerketak... eta beste hainbat proiektu garatu.

Egoera ekonomikoa ez da ona eta elkartasuna eta auzolanari esker ari gara, bes-

te hainbat bezala, egoerari aurre egiten.

Ezin dugu apirilean zendu zen Koldo Mitxelena aipatu gabe laga: bere lana bestean artean ahalik eta hobeto betetzen saiatuko gara, baina zaila izango baita berak lagatako hutsunea betetzea.

Eibartarrok astelehenean, beste urte batez, udako oporren bueltan Arraten ikusiko dugu elkar ikasturteari hasiera emateko. Eta, zer hobeto Arraten egun zoragarria pasatzeaz gain, etxera opariz beteta bueltatzea baino?

Kittonbola



SILBIA HERNANDEZ

Aurpegiak alaitzeko motibo ugari izango dira Arrate egunean.

KITTONbolia



Euskara Elkarte


Arrate egunean opariz beteta izango dugu Kittonbolia. Euro baten truke opariarekin etxera bueltatzeko aukera asko izango dituzue. Eskerrik asko parte hartu duzuen denda eta enpresa guztiei!!!

- ...eta kitto! Euskara Elkarte
- Aibe
- Amaña Avia gasolindegia
- Ansa bitxitegia
- Arregi-Dominguez arraindegia
- Artola jatetxea
- Askasibar
- Aspe
- Astelena taberna
- Astigarraga
- Athletic Club
- Azitain erretegia
- Azitain gasolindegia
- Azpiri jostundegia
- Azpiri saneamenduak
- Baglietto
- BBVA
- Benicoba
- Blanca Ioradenda
- Burbujas y mas
- Capi
- Coca Cola
- Dandara
- Depor taberna
- Dirdai bitxitegia
- Ditare
- e&m argazkidenda
- Eguren elektrodomestikoak
- Eibar Eskubaloia
- Eibar Futbol Taldea
- Eibar Motor
- Eibar Outlet
- Eibar Rugby Taldea
- Eibarbus
- Eibarko Txirrindulari Elkarte
- Eibarko Udala
- El Cantón de la Avenida
- El Corte Inglés
- Emankor
- Eroski Eibar hipermerkatua
- Errebal Kirolak
- Estación de Servicio Eibar
- Esther Galarza
- Farmalur
- Garbibox
- Genoveva arraindegia
- Gerritek
- Gratzina
- Guby mutilak
- Guby neskak
- Guillermo arraindegia
- Homme
- Hotel Unzaga Plaza
- Idoia Bergaretxe spa
- Ikusi-makusi
- Industrias G. Arizaga



Inoiz baino gehiago behar dugu

ESKERRIK ASKO parte hartu duzuen danori!



- Industrias Mail
- Iratxe belardenda
- Iñaki del Rey
- Irritsa
- Itxesi
- Izadi loradenda
- Izane
- Jauregi
- Jaz-Zubiaurre
- Jeronimo
- Kantabria
jatetxea
- Kantoï
gasolindegia
- Kerala
- Ketesa
- Kokein
- Kultu taberna
- Laboral Kutxa
- Lakett
- Leder
- Lide
- Luis del Rey



- Mamacas
- Mara-mara
- Marian-Idoia spa
- Más que wapos
- Meka-Hotel
- Mertxe gazta
eta txerrikiak
- Muga
- Mujika
harategia
- Natural
- Neure
- Nice Nice
- Oberena harategia
- Orbea



- Oroz Exclusivas S.L.
- Otegi harategia
- Pirritx eta Porrotx
- Pitxiak
- Publi-resa
- Quetzal
- Salaberria
bitxitegia
- San Andres
gozotegia
- Selene
- Solera estankoa
- Su Ta Gar
- Tribeka
- Twins
- Txutxufletas
- Umea
- Urdanibia
- Valenciaga
- Vinos Solera
Eibarresa
- Yraolagoitia
- Zurkulu

Kittonbolan parte hartzea... Zatoz!

Arrateko Amaren Jaixak 2014

Irailak 7, ARRATE BEZPERIA

- 18.00.-** MEZIA Arrateko Santutegixan eta, ondoren, SALBEA. Jarraixan, TXUPINAZUA eta kanpai-errepika.
- 18.30.-** HERRI-KIROLAK.
- 21.00.-** BERTSO AFARIXA: Sebastian Lizaso, Andoni Egaña, Maialen Lujanbio eta Amets Arzallus. Gaijartzaillia: Asier Ibaibarriaga. Kantabria jatetxian. Antolatzaillia: ... eta kitto! Euskara Elkartea.
- 20.00.-** KONTZERTUA, txosnen eskutik: Zopilotes Txirriaos, Zea Mays eta Las Tea Party.

Irailak 8, ARRATE EGUNA

- 10.00.-** Azittaingo surtidoretik urten eta Arratera IGOERIA, Ama Birjiñaren pausuen bide zaharretik. Saldia, txorizua eta ardaa banatuko dittue Zesteroko iturrixan Jai Batzordiak antolatuta.
- 10.00.-** KITTONBOLIA!
- 10.30.-** KALEJIRIA Eibarko Usartza Txistulari taldiaeren eskutik.
- 11.00.-** MEZA Nagusixa Arrateko Santutegixan. Kezka dantza taldiak eta Usartza Udal Txistulari taldiak Arrateko Amaren EZPATA-DANTZIA egingo dabe. Ondoren, Arrateko Amaren PROZESIÑUA, Usartza Txistulari taldiak, Jainaga eta Narbaiza trikitalarixak, Kezka Dantza Taldiak, bertsolarixak eta agintarixak lagunduta.
- 12.30.-** Kezka Dantza Taldiak eta Usartza Udal Txistulari Taldiak **ARRATEKO AMAREN DANTZAK** aurkeztuko dittue zelaixan.
- 13.30.-** TRIKITILARI ETA BERTSOLARIXEN saiaua.
- 17.00.-** BERTSOLARIXEN SAIUA.
- 17.00.-** Arrateko Amaren HIRU TXIRLO Sarixa. Antolatzaillia: Asola Berri alkartia.
- 17.30/20.30.-** Bete zaitetz... baina emozioz! alkoholaren inguruko kanpaiña informatzaillie eta hezitzaillia. Sasoa alkartiak (Osasun heziketa eta drogamenpekotasunen prebenziñorako alkartiak) **ALKOHOLEMIA KONTROLAK** egingo dittu. Antolatzailliak: Eibarko Udala eta Eusko Jaurlaritzako Osasun Publikuaren eta mendekotasunen Zuzendaritza.
- 17.30.-** **DANTZA SOLTE TXAPELKETIA.** 10 bikote onartuko dira, aldez aurretik gonbidauta (bost 15 urtetik gorakuak eta beste bost 15 urtetik beherakuak).
- 18.30/21.00.-** **DANTZALDIXA** Egan taldiaekin.

Dantza solte txapelketia Arrate Egunian egingo da, arratsaldeko 17.30xetan hasitza.



Jaixak Herrixak Herrixandako

(laguntzailliak: Ernai, Sortu, Eibarko Sare, Bizimina eta Eibar Rugby Taldea)

Irailak 7, Arrate bezperia

- 11.00.-** Arratera IGOERIA, Eibarko Bizikleta Plazatik ("Galerosetik") urtenda.
- 13.00.-** TRIKIPOTEUA.
- 15.00.-** HERRI-BAZKARIXA.
- 20.00.-** KONTZERTUAK: Zopilotes Txirriaos, Zea Mays eta Las Tea Party

Irailak 8, Arrate Eguna

- 12.00.-** PRESUEN eskubidien aldeko ALKARRATARATZIA.

Arrate egunaren inguruko mezak

- **DOMEKAN (ARRATE BEZPERAN):** 18.00.- Salbea.
- **ASTELEHENEAN (ARRATE EGUNEAN):** 09.30etan, 11.00etan (meza nagusia eta prozesioa), 13.00etan eta 18.00etan.
- **KOFRADIA EGUNEAN (IRAILAK 14):** 11.00.- Meza nagusia Arrateko santutegian. Ondoren, prozesioa.

Telefono jakingarriak

LARRIALDIAK.- SOS Deiak: 112. Gurutze Gorria: 943222222. DYA: 943464622. DYA anbulantziak: 943208480.

OSASUN ZENTROAK.- Larrialdiak: 943461111 / 943440633. Erdialdeko anbulategia: 943032500. Torrekuako anbulategia: 943032650. Mendaroko ospitala: 943032800.

BESTEAK.- Suhiltzaileak: 112/943202328. Udaltzaingoa: 092 / 943708424. Ertzaintza: 943204080.











GARRAIOAK.-

Untzagako taxiak: 943203071.

Anbulategiko taxiak: 943201325.

Eusko Trenbideak: 902543210 / 943120546.

eguraldia (EUSKALMET.NET)

Ostirala	Larunbata	Igandea	Astelehena	Asteartea
				
				

Irailak 14, KOFRADIA EGUNA eta basarritar jubilaueen eguna

- 10.30.-** Simón Aldazabal XIX. ANTIXIKETALDIXA. Eibarko Klub Deportibotik urten eta Arrateraiño (Orbeko bidetik).
- 11.00.-** MEZA NAGUSIXA bertsolarixekin eta Arrateko ezpata-dantzariexekin. Ondoren, prozesioa Usartza Txistulari Bandak lagunduta.
- 12.00.-** PAELLA LEHIAKETIA.
- 14.00.-** Paella lehiaketako irabazleri SARIXAK BANATZIA.
- 14.30.-** JUBILAUENDAKO BAZKARIXA, Kantabria jatetxian. Basarritar nagusixeri oparixak banatuko dituzte. Trikitilari eta bertsolarixekin.
- 17.30.-** IDI PROBAK.

ARRATE IZENEKUEN jaixaren XVII. URTEURRENA Arratera igoeria Ama Birjiñaren pausuen bide zaharretik, mezia, bazkarixa, jolasak eta dantzaldixa.

Autobus zerbitzua

PREZIOA
2 euro

- **ARRATE BEZPERAN**, Arratera igotzeko autobusak egongo dira iluntzean Ego-Gainetik. Ordutegia zehazteke (begiratu www.etakitto.com).
- **ARRATE EGUNEAN**, Eibarrera jaisteko autobusak egongo dira goizaldeko 03.00etan, 04.00etan, 05.00etan, 06.00etan, 07.00etan eta 08.00etan. Arratera igotzeko autobusak, berriz, Toribio Etxebarriatik irtengo dira 09.00etatik aurrera, bete ahala. Egun osoan gora eta behera ibiliko dira autobusak. Jaisteko azkena 21.00etan irtengo da Arratetik.
- **KOFRADIA EGUNEAN** (hilaren 14an), zerbitzu berezia egongo da -dena dela, datorren astean zehaztuko dugu ordutegia-.

Somos Eibar Eskubaloiak maila igotzea du helburu

Azken denboraldian igoera promozioan kale egin eta gero, Fernando Fernandezek prestatzen duen taldeak iazkoa errepikatzea du helburu; hori bai, oraingoan emaitza hobearrekin. Bitartean, Euskadiko Kopan murgilduta dago taldea eta, aurreko zapatuan Ipuruan Hondarribiaren aurka

jokatutako partiduen ondoren, bihar Zumaian lehiatuko du Pulporen kontra (19.00-etan) eta hurrengo zapatuan Ereintzaren kontra Ipuruan (11.15). Eibartarrek Kopako lehen fasea gainditu nahi dute, irailaren 20an ligako lehen partidua jokatu aurretik (Ipuruan, Hondarribiaren aurka).



Garaipen bidearekin jarraitzeko asmoa dute Somosekoek. LEIRE ITURBE

Hilabete osoa gimnasia erritmikoan matrikulatzeko



Martitzenean hasiko dira entrenamenduak Kalamua klubean

Gazteentzako judo klaseek bi aukera eskaintzen dituzte: astelehen eta eguaztenetan, 17.30etatik 18.30etara; edo, bestela, martitzen eta eguene-tan, ordu berean. Karate klaseak, bestalde, martitzen eta eguene-tan eskainiko dira, 17.00etatik 18.00etara. Helduentzako judo, jiu-jitsu eta defentsa pertsonaleko klaseak emango dira, astelehen, eguazten eta barixakuetan, 19.00etan hasi eta 21.00etan amaitzeko.

Pilota eskola abiatuko da datorren astean



Arrateko eguna pasa eta martitzenean hasiko da funtzionatzen pilota eskola. Enrike Simon Eibarko Klub Deportiboko pilota batzordeko delegatu berriak (azken urte guztietan lan horretan jardun duen Jose Mari Bengoetxearen lekukoa hartu du) bidalitako oharrean dioenez, klaseak martitzen eta eguene-tan emango dira, 17.00etatik 19.00etara, Ipuruako kiroldegian, eta zazpi urtetik hamaika urtetara arteko gazteei eskainiko zaizkie.

Cuevas munduko txapelketarako hautatua

Gure herriko atletak Espainiako Atletismo Federazio-ko deia jaso du azaroaren 21ean Dohan (Qatar) jokatuko den errepideko 100 kilometroko proban parte hartzeko. Iaz distantzia horretako Europako txapela jantzi zuen Asier Cuevasek eta orain zuntz haustura bateko errekupeazio fasean aurkitzen da.



Manu Fernandez Goikoetxea beti gogor betirako gurekin



Igerilariak euren markak hobetzen jarraitu dute

Gure herriko igerilariak ondo aprobetxatu dituzte besteon oporrak euren markak hobetzeko. Markel Alberdi eta Ander Izagirre izan dira, euren artean, lorpen handien jabe. Alberdik 100 metroko Espainiako marka ondu zuen, orain dela hamar urtetik indarrean zegoena txikituta. Abuztuaren 18an, 4x100 metroko lehen txandakakoa amaitutakoan, kronometroak markatzen zuen 49.25ekoak Espainiako marka ezarri zuen.

Alberdik parte hartu zuen iaz Bartzelonan jokaturako Mundialetan eta badu itxaropena 2016an Rio de Janeiron jokaturako diren Olinpiadetan parte hartzeko. Bere marka nagusiak 50 metrokoan (22.68), 100 metrokoan (49.25) eta 4x100 txandakakoan (3.17.47) lortu ditu. Eta, lorpen garrantzitsuenei dagokionez, brontzea eskuratu du Espainiako txapelketako 50 eta 100 metrokoetan.

Ander Izagirrek ondo ikasi du Markelek markaturako bidea eta



Ander Izagirre eta Markel Alberdi, Edu Lopez entrenatzailearekin.

juniorretako Espainiako txapela jantzi zuen 100 librean, 52.05 denborarekin. 50eko distantzian mailako bigarren denborarik

onena egin zuen, azkenean 4. postuan amaitu arren. 200 eta 400 librean ere bere marka pertsonalak hobetu zituen.

Triatloikoen 25. urteurreneko bazkaria

Eibar Triatloi Taldeak aurten 25 urte betetzen duen honetan, hainbat ekitaldiren artean urriaren 11n biziko du egun handia. Egundorretan, zenbait kirol proba egin ondoren, bazkari handia egingo

dute Armeria Eskolan. Izena emateko azken eguna irailaren 30 izango da eta bertan parte hartzeko informazio guztia <http://www.eibartt.org/comida-25-aniversario.html> web orrian dago.

Aukera neskontzat foballean jokatzeko

Aurreko astean hasi ziren entrenatzen Urki foball taldeko kadete A eta jubenil B mailetakoko taldeak, klubeko beste taldeei aurrea hartuta. Nesken taldea osatze bidean, bestal-

de, 2001ean eta 2002an jaiotakoek aukera dute oraindik Urkirekin jokatzeko. Horretarako, interesatuek 578-395039 telefono zenbakira deitu dezakete Txusengatik galdetuz.



Concepto Egileren aurkezpena zaletuen aurrean

Aurrera Vitoria bigarren B mailara igo berriaren aurka egingo du aurkezpena Debabarrena areto-foballeko talde nagusiak, domekan Olaizaga kiroldegian 12.30etan hasiko den partiduan. Orain arte, Concepto Egilek hiru partidu jokatu ditu denboraldiaurrean: Ibararteri 2-3 irabazi zion Nafarroako Zubirin, 5-0 galdu zuen 1. mailako Xota Magna Navarraarekin Iruñeako Anaitasunean eta, azkenik, Ipuruan domekan jokaturako neurketan, 2-1 irabazi zion Elorriokori.



Funeraria Ehorztetxe
Mugica

<p>EIBAR</p>  <p>Beilatokia Funeuskadi Eibar: Otaola, 27</p>	<p>ELGOIBAR</p>  <p>Beilatokia: SIGMA Industrialdea (Olasoko hilerriaren ondoan)</p>
<p>Bulegoa Eibarko erdialdean</p>  <p>Bulegoa Bidebarrieta, 20</p>	
<p>24 orduko zerbitzu iraunkorra</p> <p>943 20 19 51 www.funeuskadi.com</p>	
<p>Euskadiko Lehen Ehortze Taldea</p> 	

ZURE irribarre eta samurtasuna betirako izango dira GURE ARTEAN

ETXEKO ETA FAMILIAKOAK



FERNANDO AZPIAZU ELIZBURU
(2014-VIII-10ean hil zen, 56 urterekin)

Eibar FT: Primeran ere, maila ematen

23 jokalarik osatzen dute Eibar FT-ren lehen ekipoa

Azken egunean fitxatutako Dejan Lekic-ekin itxi zuen lehen taldearen plantila Eibar FT-k eta, horrela, iaz 2. mailan jardun zuen taldearen jokalaria kopuru berearekin egingo dio aurre Garitanok prestatzen duen taldeak maila berriari. 11 dira iaztik taldean jarraitzen duten jokalaria: beraz, beste hamabi irten diren moduan, hamabi izan dira ere taldera etorri berriak.

Honakoak dira aipatutako jokalaria berri horiek: Javi Lara (Ponferradina), Angel (Levante), Jaime (Valladolid), Dani Nieto (Bartzelona B), Ekiza (Athletic), Abraham (Zaragoza, lagata), Manu del Moral (Sevilla, lagata), Boateng (Rayo), Piovaccari (Sampdoria, lagata), Didac Vila (Milan, lagata), Berjon (Murtzia) eta Lekic (Gencerbirligi). Jokalaria bakarrarengatik, Dani Nietorengatik, ordaindu du Eibarko taldeak: 75.000 euro Bartzelonari. Bestalde, taldetik irten duten jokalaria honakoak izan dira: Kijera eta Urko Vera (Mirandes), Aitor Arregi (Cadiz, lagata), Jota Peleteiro (Ingalaterrako Brentford), Mainz (Greziako AE Larissa), Gilvan Gomes (Greziako Platanias), Yuri Berchiche (Reala), Morales (Levante), Diego Jimenez (Xativaiko Olympic), Diego Rivas (Llagostera), Matias Ibañez (Argentinako Lanus) eta Alain Eizmendi (Leganes).

Aurrendenboraldiko EMAITZAK

UD Logroñes 0-3 Eibar (Logroñon)
Barakaldo 0-2 Eibar (Barakaldon)
Eibar 2-1 Racing (Bergaran)
Numancia 2-1 Eibar (Sorían)
Valladolid 0-1 Eibar (Valladoliden)
Eibar 0-4 Alaves (Ipuruan)
Reala 1-0 Eibar (Zarautzen)
Osasuna 0-2 Eibar (Tafallan)

Denboraldia 23 jokalarirekin hasiko badu ere, Eibarrek beste bi fitxa ditu libre (talde bakoitzak 25 jokalaria izan ahal ditu).

18 milioi euroko aurrekontua eta klubaren bilakaera

Lehen taldearen 23 jokalarirekin batera, beste 12 lagunek osatuko dute gorputz teknikoa eta beste hamar izango dira gestioaren pertsonalean. Guztira, 45 lagun izango dira esperientzia berrian eta Komunika-



Lana gogotik egin behar izan dute Fran Garagarzak eta Alex Aranzabalek.



Realari Javi Larak sartutako gola 1. jardunaldiko onena jo zuten.

zioa, Finantzieroa, Komertziala, Obrak eta Harrera osatuko dute klubaren kudeaketaren egitura. Alex Aranzabal presidentea zuzendari orokorra izango da eta, modu horretan, klubaren soldata izango duen lehena izango da, Avia enpresan eszedentzia eskatu eta gero. Taldearen aurrekontua 18 milioi eurokoa da, bi urtetan milioitik (2. B mailan), iazko hiru eta erditik pasatuta (2. A mailan), oraingo 18ra pasatzeko.

Obrak Ipuruan

Klubak 800 bat eserlekutan handitu nahi du Ipuruaren aforoa, baina auzoko batzuek ez daude ados proiektuarekin (gaur arte luzatu da helegitea jartzeko aukera). Horrez gain, telebistak emango dituen partiduei begira, hainbat foko berri ezarriko dira.

Bestalde, 450 abonatu berriekin, 4.006 abonatu ditu Eibar FT-k gaur egun, eurretatik 3.247 Eibarkoak (hau da, herriko populazioaren %12). Klubak, gainera, hitzarmena adostu du 3. mailan jokatuko duen Azpeitiko Lagun Onak taldearekin, orain dela urte bi bigarren taldea kentzerakoan sortutako hutsunea betetzeko asmoz. Horrez gain, Bergaran entrenatzen jarraitzen badu ere, Arrasateko Atxabalpe foball zelaia egokitzen dihardute, taldearen lan gune bihurtzeko.

Foball-eskola

Irailaren 15era arte eman dezakete izena 2004an, 2005ean eta 2006an jaiotako neska-mutilek foball-eskolean parte hartzeko. Saiok martitzen, eguazten eta eguenetan izango dira, urrian hasi eta maiatzean amaitu arte. Informazio gehiagorako: escuela-futbol@sdeibar.com



2. jardunaldian Abrahamek lortu zuen golik onena Vicente Calderonen.

EIBAR FT-KO JOKALARIEN DORTSALAK

1 Irureta	10 Arruabarrena	19 Piovaccari
2 Boveda	11 Dani Nieto	20 Manu del Moral
4 Añibarro	13 Irazusta	21 Berjon
5 Ekiza	14 Dani Garcia	22 Navas
6 Albentosa	15 Lekic	23 Lara
7 Capa	16 Lillo	24 Abraham
8 Errasti	17 Didac Vilà	25 Jaime
9 Angel	18 Boateng	

Argazki eta film laburren lehiaketak

Udalak Indalezio Ojanguren XXVII. Argazki Lehiaketarako eta Asier Errasti XV. Film Laburren Jaialdirako deialdiak egin ditu. Klub Deportiboaren laguntzarekin antolatutako Indalezio Ojanguren Argazki Lehiaketarako lanak aurkezteko epea urriaren 3an amaituko da. Edozeinek izango du parte hartzeko aukera, gehienez zuri-beltzean hiru lan eta koloretan beste hiru aurkeztuta. Lanak aipatutako egunerako Portalean (Bista Eder, 10) entregatu behar dira. Eta Plano Corto Kultur Elkartearekin batera antolatutako XV. Asier Errasti Laburmetraia Jaialdirako lanak banaka zein taldeka egiteko aukera dago. Lanek gehienez 30 minutuko iraupena izango dute eta DVD formatoan entregatu behar dira (Portalean) edo, bestela, euskarri digitalean, www.uptofest.com webgunearen bidez. Antolatzailerik sail bi, fikzioa eta animazioa bereizi dituzte. Informazio gehiagorako udalaren webgunera (www.eibar.eus) jo daiteke.



Untzetaren disko berria

Gaztelupeko Hotsak-en eskutik Mar-kos Untzeta eibartarrak bere laugarren diskoa, "Seinaleak" izenburukoa grabatu du. Hamar abestirekin osatutako diskoa "sekula grabatu duen bakarkakoena" da, grabazioan ahotsa, ahosoi-nua eta gitarra besterik ez dituelako erabili. Horretarako arrazoia "kantuetan jorratutako gaien gordintasuna azpimarratzea" dela argitu dute, kantuetan, besteak beste, emakumeen kontrako indarkeria eta gatazka armatua bezalakoetaz diharduelako. Untzetak irailaren 16an aurkeztuko du lan berria, Bilboko Kafe Antzokian, Joel Rafael estatubatuarrekin partekatuko duen emanaldian.

Laskurainek zuzendari titulua jaso du



Usartza Txistulari Taldeko eta Cielito Musika Bandako kidea den Jose Miguel Laskurainek Orkestra, Banda eta Abesbatza zuzendari titulua jaso berri du, Huelvako Maestro Navarro Lara eskolan hiru urte horretarako ikasten eman eta gero. Argazkian, gaur egun Sanjuanetako Danborradako zuzendaria dena Navarro Lararen esku-tik diploma jasotzen.



Baimendutako
harategia
Euskal Okela
Carnicería
autorizada

Bidebarrieta 20
Tlfno: **943 20 16 69**





- **tartak**
- **enkarguak**
- **etxera**

Bidebarrieta, 28
☎ 943 20 79 73

LIKIDAZIOA

Valenciaga



%50eko
deskontuak

K O N F E K Z I O A K

Zuloagatarren, 7 ☎ 943 20 22 33

Arma erakusketa berria prestatzen

Astelehenaz geroztik Eibarko Armagintzaren Museoko arma-bilduma hartzan duen erakusketa itxita dago, Arma Museoaren mendeurrenaren harira erakusketa berria prestatzen dihardute-lako. Urriaren 8an zabalduko den erakusketa iraunkorra prestatzeko beharrea diharduten bitartean, urriaren 7ra arte museoko arma erakusketak itxita jarraituko du. Hala ere, museoko beste areto guztiak betiko moduan zabalduko dituztela adierazi dute museoko arduradunek.

Portalean dagoen museoak 500 pieza ingururekin osatutako arma-bilduma dauka eta orain arte horietako batzuk baino ez dituzte erakutsi. Bilduma osatzen dutenetako asko 1914an Armeria Eskolan zabalduko museokoak dira eta horiekin batera gerora erositako zein dohaintzan jasotako beste batzuk daude. Museo-ko bilduman suzko arma motzak (ugarienak), luzeak eta arma zu-



Arma bilduma ezin daiteke ikusi, baina beste aretoak betiko martxan zabalduko dituzte.

riak daude, batzuk Eibarren egindakoak eta beste batzuk, berriz, atzeritik ekarritakoak. Pieza gehienak XIX. eta XX. mende-koak dira, baina bildumako armarik zaharrena XVI. mendekoa da.

Jose Zugastiren lanak Arantzazun ikusgai

Gaur zabalduko da Arantzazuko Gandiaga eraikinean "Amets Kabi" erakusketa eta urriaren 19ra arte egongo da ikusgai. Proiektu horretan zortzi artista euskaldun izango dira parte hartzen, ba-koitza hiru piezarekin. Zugasti eibartarrarekin batera, Ricardo Ugarte, Jose Ramon Anda, Iñaki Ruiz de Eguino, Iñigo Arregi, Iñaki Olazabal, Koldobika Jauregi eta Guillermo Olmo dira "Amets kabiko" artistak, guztiak Gaur taldearen (horko partaide izan ziren Oteiza, Txillida, Basterretxea hil berria edo Remigio




Zugastik erakusten dituen hiru obretako bat.

Mendiburu) ondorengo belaunaldikoak. Sarrera doan izango da eta ordu-tegia honakoa da: barixaku eta zapatuetan 11.00-etatik 14.00etara eta 17.00etatik 19.00etara; eta domeka eta jaiegunetan 11.00etatik 14.00etara.

Euskadiko argazkiak Perun

Orain dela hamabi urtetik Eibarren bizi den Einer Rodriguez argazkilariak Euskal Herriko 28 argazki panoramiko ikusgarriekin osatutako erakusketa zabaldu zuen abuztuaren 15ean Trujillo (Peru) bere sorterrian. Trujilloko BBVA Continental fundazioaren egoitzan ikusgai ipinitako argazkietan, gure geografiako hainbat toki ederrekin batera, Eibarko eraldaketari eskainitako beste irudi batzuk erakutsi ditu.




ZURICH

Lejardi S.L. Aseguru Agentzia

Tel. 943 20 11 49 / Plaza Barria, 8 / Eibar

Harixa Emoten-en izena emateko epea zabalik

Idazlearekin Harixa Emoten, Udal Liburutegiak eta ...eta kitto! Euskara Elkar-teak antolatzen duten literatura tertulietan izena emateko epea irailaren 12ra arte egongo da zabalik. Izena emateko liburutegira bertara joan daiteke edo bertako blogean dagoen inprimakia bete. Jarduera urritik maiatzera arte egingo da, eta lehenengo hiru liburua aukeratu daude: urriaren 7an, Ana Jakaren "Ez zen diruagatik" liburuaren inguruko tertulia egingo da; azaroaren 4an Asier Serranoren "Abisali" liburuarena eta abenduaren 2an, Miren Agur Meaberen "Kristalezko begi bat" liburuarena. Saiotetan liburuen egileek ere hartuko dute parte. Euskarazko liburua irakurtzea gustuko duen edozeinentzat daude zabalik tertulia hauek.



Bestalde, Juan San Martin Liburutegiak ikasturte honetan hartuko dituen gainontzeko irakurketa klubetan (umeen eta gaztele-razko klubetan) eta ingelesa praktikatzeko bileretan ("Meetings at the library") parte hartzeko izen-ematea ere hilaren 12ra arte egongo da zabalik.

Ñaco Goñi eta Edu Manazas zuzenean



Ez Dok tabernak indartsu ekin nahi dio konzertu denboraldiari eta bihar gauean, 23.30etan Ñaco Goñi eta Edu Manazas elkarrekin zuzenean entzuteko aukera paregabea izango da. Artista biak estatutik kanpora ere, atzerrian maila gorenean daude eta harmonika eta gitarrarekin blues soinurik sakone-
nak eskaintzeko prest datozkigu.

Eibarko Kantuzaleak

Datorren eguaztenean hasiko dute ikasturte berria Eibarko Kantuzaleak abesbatzakoek, asteroko entseguekin: irailaren 10ean, 17an eta 24an San Andres elizako lokaletan batuko dira, 19.00etan eta taldearekin bat egitera animatzen den edozeinek ateak zabalik izango dituela gogorarazi nahi dute. Hilaren 29an, berriz, Sardiniara bidaiari joango dira.



laburrak

ARGAZKI ERAKUSKETAK

Klub Deportiboko Argazkilaritza taldekoen eskutik, irailaren 30era arte hiru erakusketa hauek egongo dira ikusgai: Klub Deportiboan, Iosu Garairen lanak ikus daitezke; Ambigú tabernan, Enrique Lorenzorenak; eta Portalea tabernan, berriz, Pedro Arriolaren "Uzbekistan" izenburuko bilduma dago ikusgai.




UEU

Irailaren 30ean amaituko da UEUk eskainitako ikastaroren bat egin dutenentzat diru-laguntzak eskatzeko epea. Eskatera orria Pegoran eta Udalaren web orrian eskuratu daiteke, bestelako informazioarekin batera.

ABESBATZA EGUERDIAN

San Andres parrokiako abesbatzak oraingoan Arrate bezperako emanaldia domeka eguerdiko mezarekin eskainiko du eta ez, ohikoa denez, arratsaldean. Hori dela eta, 12.00etako mezan abestuko dute Salbea eta Goazen Arratera.



MANU FERNANDEZ GOIKOETXEA

*EZ EGIN NEGARRIK AMAITU DELAKO;
IRRIBARRE EGIN BIZI IZAN DUGULAKO.*

Zure kuadrila

telefono jakingarriak

SOS deiak.....	112
Pegora	010
Udaletxea	943 70 84 00
Portalea.....	943 70 84 39
Udaltzaingoa.....	943 20 15 25
Mankomunitatea	943 70 07 99
Debegesa	943 82 01 10
KIUB	943 20 38 43
Epaitegia	943 03 34 00
Iberdrola	901 20 20 20
Naturgas.....	902 12 34 56
DYA Larrialdiak ..	943 46 46 22
Gurutze Gorria...	943 22 22 22
Mendaro osp.....	943 03 28 00
Anbulategia	943 03 25 00
Torrekua	943 03 26 50
Errepideak.....	902 11 20 88
Ertzaintza	943 53 17 00
Eusko Tren	902 54 32 10
Pesa.....	902 10 12 10
Taxiak	943 20 30 71
.....	943 20 13 25
Alkohol.Anon.	629 14 18 74
Al-Anon/Alateen ..	650 26 59 63

autobus ordutegiak

EIBAR-DONOSTIA. Lanegunak: 07.00etatik 9.30etara ordu erdiro eta 09.30etatik 20.30etara orduro. Zapatuak: 07.00 eta 08.30etatik 20.30etara orduro. Jaiegunak: 08.50, 10.30, 12.30, 13.50, 15.50, 17.50, 19.30 eta 20.55. **DONOSTIA-EIBAR.** Lanegunak: 07.00, 07.30etatik 14.30etara orduro, 15.00, 15.30etatik 20.30etara orduro eta 21.00. Zapatuak: 07.00, 08.30etatik 20.30etara orduro, 21.00 eta 22.00. Jaiegunak: 08.30etatik 18.30etara bi orduro, 19.30, 21.00 eta 22.00.

EIBAR-BILBO. Lanegun eta zapatuak: 06.40etatik 20.40etara orduro. Jaiegunak: 07.40etatik 21.40etara orduro. **BILBO-EIBAR.** Lanegunak: 06.40etatik 21.40etara orduro. Zapatu eta jaiegunak: 07.40etatik 21.40etara orduro.

EIBAR-GASTEIZ. Lanegunak: 07.00etatik 21.00etara orduro eta 06.15, 10.15, 14.15 eta 18.15. Jaiegunak: 08.45, 12.45, 16.45 eta 20.45. **GASTEIZ-EIBAR.** Lanegunak: 06.30etatik 20.30etara orduro eta 12.00, 16.00 eta 20.00. Jaiegunak: 10.30, 14.30, 18.30 eta 20.30.

EIBAR-IRUÑEA. Lanegunak: 07.45 eta 13.30. Jaiegunak: 07.45 eta 18.00. **IRUÑEA-EIBAR.** Lanegunak: 11.00 eta 18.00. Jaiegunak: 11.00 eta 21.00.

EIBAR-ARRATE. Zapatuak: 14.00. Jaiegunak: 09.00, 10.00, 11.00, 13.00 eta 18.00. **ARRATE-EIBAR.** Jaisteko: ordu erdi geroago.

EIBAR-ELGETA. Lanegunak: 06.40, 08.40, 13.40, 15.40, 16.40, 18.40 eta 20.40. Zapatu eta jaiegunak: 08.40, 13.40, 15.40 eta 20.40. **ELGETA-EIBAR.** Jaisteko: 20 minutu geroago.

EIBAR-MENDARO. Lanegunak: 06.10 eta 07.05etatik 21.35etara 20 minutu eta 22.20. Zapatuak: 07.00etatik 22.00etara orduro eta 23.10. Jaiegunak: 08.00etatik 21.00etara orduro eta 22.15. **MENDARO-EIBAR.** Lanegunak: 06.15, 06.50etatik 21.10etara 20 minutu eta 22.05. Zapatuak: 06.45etatik 20.45etara orduro, 22.05 eta 22.45. Jaiegunak: 07.45etatik 20.45etara eta 22.05.

EIBAR-LOIU. Egunerok: 05.50, 09.50, 13.50, 17.50 eta 21.50. **LOIU-EIBAR.** Egunerok: 07.15, 11.15, 15.15, 19.15 eta 23.15.

tren ordutegiak

EIBAR-DONOSTIA. Egunerok: 08.15etatik 22.15etara orduro. Lanegunak: baita 06.13 eta 07.13. **DONOSTIA-EIBAR.** Egunerok: 07.47etatik 20.47etara orduro. Lanegunak: baita 05.47 eta 06.47.

EIBAR-BILBO. Egunerok: 08.15etatik 22.15etara orduro, 10.36 eta 21.36. Lanegunak: baita 06.13 eta 07.13. **BILBO-EIBAR.** Egunerok: 06.57etatik 20.57etara orduro, 09.34 eta 20.34. Lanegunak: baita 05.57.

hildakoak

- Alejandro Travieso Peña. 97 urte. 2014-VII-1.
- Carmen Etxaburu Barbarias. 81 urte. 2014-VII-1.
- Feliciano San Millan Vigneña. 89 urte. 2014-VII-1.
- Florentina Duro Ereño. 85 urte. 2014-VII-2.
- Jose Maidagan Lopez. 83 urte. 2014-VII-3.
- Jose Luis Prieto Arana. 87 urte. 2014-VII-3.
- Esther Uriguen Landa. 78 urte. 2014-VII-6.
- Manuel Chamorro Garcia. 88 urte. 2014-VII-6.
- Belen Garitano Iraola. 61 urte. 2014-VII-7.
- Julian Osoro Alberdi. 83 urte. 2014-VII-8.
- Patxi Zubizarreta Larrañaga. 83 urte. 2014-VII-10.
- Teresa Errazu Gallastegi. 93 urte. 2014-VII-11.
- Beatriz Ruiz Quintano. 86 urte. 2014-VII-13.
- Concha Mendoza Astigarraga. 101 urte. 2014-VII-14.
- Maximina Garcia Calzon. 73 urte. 2014-VII-15.
- Manuel Taboada Cid. 66 urte. 2014-VII-15.
- Menigna Dueñas Dueñas. 81 urte. 2014-VII-16.
- Juan Carlos Perez Garcia. 50 urte. 2014-VII-16.
- Jose Manuel Citores Perez. 53 urte. 2014-VII-17.
- Luis Blanco Cabezon. 88 urte. 2014-VII-17.
- Maritxu Alberdi Agirregomezkorta. 88 urte. 2014-VII-18.
- Juan Urriola Sarasketa. 96 urte. 2014-VII-18.
- Milagros Marquez Ortiz. 90 urte. 2014-VII-20.
- Fernando Lopez Montero. 81 urte. 2014-VII-20.
- Jose Peribañez Ferrero. 83 urte. 2014-VII-24.
- Enrique Valenciaga Gisasola. 58 urte. 2014-VII-24.
- Luis Vazquez Taverro. 61 urte. 2014-VII-26.
- Corti Cordon Martinez. 85 urte. 2014-VII-27.
- Maritxu Agirregomezkorta Kortaberria. 88 urte. 2014-VII-28.
- Agustin Hualde Anaut. 88 urte. 2014-VII-29.
- Concepcion Zubiaurre Izagirre. 91 urte. 2014-VII-29.
- Agustin Minondo Arizaga. 66 urte. 2014-VII-29.
- Conchi Azpiazu Txurruka. 88 urte. 2014-VII-30.
- Nieves Perez Gonzalez. 85 urte. 2014-VII-30.
- Leandro Lasa Gorostiza. 51 urte. 2014-VII-30.
- Teresa Salgado Cid. 84 urte. 2014-VII-30.
- Jesus Martinez Balbas. 88 urte. 2014-VIII-3.
- Jose Antonio Lopez Lopez. 55 urte. 2014-VIII-3.
- Manu Fernandez Goikoetxea. 46 urte. 2014-VIII-4.
- M^e Pilar Garitagoitia Narbaiza. 87 urte. 2014-VIII-4.
- Jose Atxa Egiguren. 92 urte. 2014-VIII-4.
- Teresa Gonzalez Menendez. 87 urte. 2014-VIII-5.
- Antonia Lopez de Gereñu Jauregi. 98 urte. 2014-VIII-6.
- Maria Sobrino Rodriguez. 89 urte. 2014-VIII-7.
- Olvido Pinilla Fernandez. 92 urte. 2014-VIII-8.
- Manuel Cobo Rozadilla. 70 urte. 2014-VIII-8.
- Rosa Nebreda Fernandez. 86 urte. 2014-VIII-8.
- Andres Atxa Txurruka. 76 urte. 2014-VIII-8.
- Fernando Azpiazu Elizburu. 56 urte. 2014-VIII-10.
- Juan Luis Martinez Suarez. 65 urte. 2014-VIII-13.
- Fco. Javier Miranda Carneros. 49 urte. 2014-VIII-14.
- Emilia Azofra Rubio. 95 urte. 2014-VIII-21.
- Juan Luis Iturbe Arretxea. 62 urte. 2014-VIII-21.
- Jose Ignacio Rementeria Albistegi. 71 urte. 2014-VIII-21.
- Jose Francisco Stodulka Laskurain. 75 urte. 2014-VIII-22.
- Mikel Aizpurua Leiaristi. 63 urte. 2014-VIII-26.
- Adelina Unanue Muñoz. 90 urte. 2014-VIII-27.
- Puri Gorostiza Ugaldel. 69 urte. 2014-VIII-28.
- Arrate Kruzelegi Trokaola. 84 urte. 2014-VIII-28.
- Ignacio Etxabe Arizmendiarieta. 76 urte. 2014-VIII-28.
- Nieves Uriarte Madina. 93 urte. 2014-VIII-29.
- Jose Leon Rodriguez. 70 urte. 2014-IX-2.

farmaziak

- ✓ **barixakua 5**
EGUNEZ **Azkue** (T. Etxebarria, 4)
- ✓ **zapatua 6**
EGUNEZ **Iraundegi** (Sostoatarren, 10)
- ✓ **domeka 7**
EGUNEZ **Elorza** (J. Gisasola, 18)
- ✓ **astelehena 8**
EGUNEZ **Larramendi** (Calbeton, 19)
- ✓ **martitzena 9**
EGUNEZ **Mendinueta** (Urkizu, 6)
- ✓ **eguztena 10**
EGUNEZ **Goikoetxea** (Ibarkurutze, 7)
- ✓ **eguna 11**
EGUNEZ **Zulueta** (S. Agustin, 5)
- ✓ **barixakua 12**
EGUNEZ **Mandiola** (S. Agustin, 3)

GAUEZ BETI**Azkue** (T. Etxebarria, 4)**jaiotakoak**

- Marwa Essaghouani El Hamzaqui. 2014-VII-3.
- Iزارo Arriola Ansotegi. 2014-VII-3.
- Irati Arriola Ansotegi. 2014-VII-3.
- Jon Arrate Perez. 2014-VII-5.
- Manex Garramiola Kaperotxipi. 2014-VII-3.
- Kima Galvan Letona. 2014-VII-8.
- Mohamed El Moussaoui Moussa-Yakalev. 2014-VII-9.
- Damaris Valdes Traba. 2014-VII-11.
- Mohamed Tham. 2014-VII-11.
- Daybelis Gomez Rodriguez. 2014-VII-13.
- Saioa Riaño Garzon. 2014-VII-18.
- Amets Orueta Gonzalez. 2014-VII-20.
- Lier Astigarraga Perez. 2014-VII-21.
- Ibai Atxa Oñederra. 2014-VII-23.
- Markel Laskurain Arrizabalaga. 2014-VII-24.
- Enai Zabaleta Anguera. 2014-VII-24.
- Maialen Martin Vega. 2014-VII-25.
- Beñat Amesti Aranzabal. 2014-VII-27.
- Danel Iglesias Cid. 2014-VII-30.
- Amaia Muñoz Larreategi. 2014-VII-30.
- Maddi Perez de Obanos Larreategi. 2014-VII-31.
- Ane Vega Alberdi. 2014-VII-31.
- Unai Garcia Beckmann. 2014-VIII-2.
- Danel Zubia Cano. 2014-VIII-2.
- Markel Pizarro Zendoia. 2014-VIII-2.
- Itxaso Jimenez Vidal. 2014-VIII-3.
- Nora Arriola Iturbe. 2014-VIII-3.
- Ander Silva Escribano. 2014-VIII-4.
- Oier Abantzabalegi Zamakola. 2014-VIII-5.
- Ian Jimenez Ezenarro. 2014-VIII-9.
- Helene Vega Lopez. 2014-VIII-12.
- Lucas Azpiazu Cardama. 2014-VIII-12.
- Raydel Marquez Suris. 2014-VIII-16.
- Kepa Silveas Iburguren. 2014-VIII-19.
- Naro Godoy Carrillo. 2014-VIII-21.
- Asier Alexander Acha Suarez. 2014-VIII-25.
- Teresa Soria Vieites. 2014-VIII-27.
- Bilal Ben Lahbib. 2014-VIII-28.

laztanak emoten...

Zure senide edo lagunen bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (...eta kitto!ko bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena aurretik egon beharko da ...eta kitto!-n.



Zorionak, IRATI, haraiñegun bost urte egin zenduaz-en-eta. Etxeko printzesarentzat, famelixa guztiaren partez.



Zorionak, UXUE Baroja, uztaillan bederatz-i urte egin zenduaz-en-eta. Patxo haundi bat famelixa guztiaren partez.



Zorionak, NOAH, astelehenian zazpi urte beteko dozuzelako. Muxu bat famelixaren eta, batez be, Maren eta Nahia- ren partez.



Zorionak, MAREN, abuztuaren 29xan hiru urte bete zenduaz-en-eta. Laztan haundi bat tio Iñigo eta amama Arantzaren partez.



Zorionak, ILARGI, abuztuaren 28xan lau urte bete zenduaz-elako. Oso haundixa egin zara eta gu haundi bihurtu. Famelixaren partez.



Zorionak, LUCIA, abuztuaren 17xan zortzi urte egin zenduaz-en-eta. Muxu bat etxekuen partez.



Zorionak, IRATI San Martin, gaur zortzi urte betetzen dozuz-eta. Ondo pasa eguna, "Marijaia"! Etxekuen partez.



Zorionak, JUNE, abuztuaren 24an zortzi irte bete zenduaz-en-eta. Muxu haundi bat, printzesa, famelixaren partez.



TELLUTXI maittia... Zorionak!!!



Zorionak, XABI, abuztuaren 6xan lau urte egin zenduaz-en-eta. Aitxixa Javi, amama Carmen eta tio Borjaren partez.



Zorionak, EUKENE, abuztuaren 19xan bost urte egin zenduaz-en-eta. Muxu haundi bat etxekuen partez.



Zorionak, PAUL, txapeldun, abuztuaren 25ian lau urte egin zenduaz-elako. Donostiako eta Eibarko famelixakuen partez.



Zorionak, UXUE eta MARTINI!, uztaillan eta abuztuaren sei eta hiru urte bete dozuez-eta. Muxu haundi bat famelixa guztiaren partez.



Zorionak, NIKOLE eta PAULA, Arrate egunian urtetxua egitten dozue-eta. Muxu haundi bana famelixa guztiaren partez.



Zorionak, UNAX eta ANDER, abuztuaren urtiak bete dozuez-eta. Muxu haundi bat etxekuen partez.



Zorionak, DANEL (bost urte) eta ELENE (zortzi), udan urtiak bete dozuzelako. Milla muxu danon partez.

SUDOKUA

		4	7			5		
6	5					7	3	
						2		
1				8	7			2
	8			5			7	
7			1	6				5
		1						
	3	7					4	1
		9		8	6			



Zorionak, OLATZ, abuztuaren 30ian bost urte bete zenduaz-en-eta. Etxekuen partez.



Zorionak, LEIRE, astelehenian 18 urte beteko dozuz-eta. Muxu asko famelixaren partez.



Zorionak, EGOITZ, zazpi urte bete dozuz-eta. Aitaxo, Naroa, Irene eta famelixaren partez.



Zorionak, EKAIN, domekan zazpi urte beteko dozuz-eta! Muxu haundi bat etxeko guztion partez.



Zorionak bi lehengusiñ honeri. IXONE Ortiz de Zaratek bi urte beteko ditte domekan eta IZARO Guerrero Garaizabalek urtetxua egiñ eban abuztuaren 22xan. Famelixa guztiaren partez.

1. Etxebizitza

1.2. Errentan

- Logelak alokagai T. Etxebarria kalean. Tel. 631-325616. Andrea.
- Pisia hartuko nuke Eibarren alokairuan. Tel. 632-192408.
- Lagun bakarrak pisua hartuko luke alokairuan Eibarren. Tel. 656-758793.
- Pisia alokatzen da Eibarko Arane kaleko Jatako eraikinean. Logela bakarrekoa. Altzairu berriak eta diseinuazkoak. 500 euro. Tel. 645-735442.
- Gizonezkoak etxe txikia hartuko luke alokairuan. Tel. 603-225505.
- Pisia alokatzen da Donostiako Gros auzoan. Ikasleentzako egokia, unibertsitateko eskolak irauten duten saioan. 3 logelakoa. Tel. 639-775253. Juan Andres.
- Pisia hartuko nuke alokairuan Eibarren. 400-500 euro ordaintzeko prest. Tel. 632-506970 eta 632-337083.
- Pisia alokagai Jardinieta kalean. 3 logela, egongela, sukalde eta komuna. Dena kanpora begira. Tel. 690-018786.

3. Lokalak

3.2. Errentan

- 25 m²ko lokala hartuko nuke errentan. Merke, ahal bada. Tel. 618-854121.

4. Lana

4.1. Lan bila

- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko (esperientzia) eta garbiketarako egiteko. Tel. 642-609678.
- Geriatria tituludun emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko garbiketarako egiteko. Tel. 652-532589.
- Neska euskalduna eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko garbiketarako egiteko. Tel. 617-571210.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita asteburuetan ere. Tel. 630-531469.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Orduka. Tel. 648-180233.
- Emakumea eskaintzen da edozein lan egiteko. Tel. 674-342769.
- Neska eskaintzen da edozein lan egiteko. Tel. 609-333892.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Ordu-tegi zabalak. Tel. 638-338816.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 649-626975.
- Emakumea eskaintzen da edozein lan egiteko. Tel. 603-243564.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako lanak egiteko. Tel. 608-147559.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Externa. Tel. 686-265293.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 606-354982.

Atal honetako iragarkiak doan dira, etxeen, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken hauetako PREZIOAK honakoak dira:
Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 10 euro; saldu, 15 euro.
Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 10 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. **Iragarkiak ipintzeko: 943-200918.**

1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 631-684920.
- Irakasle ikasketak (LHrako) amaituta dituen mutil euskalduna eta arduratsua eskaintzen da haurrak eskolara eramateko. Tel. 634-430647.
- Neska euskalduna eskaintzen da nagusiak zaintzeko, etxeko lanak egiteko eta tabernan jarduteko. Esperientzia. Tel. 600-610630.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko, garbiketarako egiteko eta sukalde-laguntzaile jarduteko. Tel. 645-194423 eta 943-176002.
- Neska eskaintzen da etxeko lanak egiteko, sodiedadeak garbitzeko eta nagusiak zaintzeko. Tel. 628-872295.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 672-867999.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 602-123667.
- Neska arduratsua eskaintzen da edozein lan egiteko. Tel. 631-110716.
- Emakumea eskaintzen da lan egiteko. Orduka, gaez edo interna. Tel. 672-867999.
- Emakumea eskaintzen da garbiketarako egiteko eta nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 680-808125.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Orduka edo interna. Tel. 631-385949.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna edo orduka. Tel. 679-946934.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Abuztuan ere bai. Tel. 606-906729.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Orduka. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 608-147559.
- Gizona eskaintzen da edozein lan egiteko. Tel. 632-192408.
- Mutila eskaintzen da lan egiteko: igeltsaritza, konponketak... Tel. 673-271449 eta 632-569245.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Esperientzia. Tel. 631-408528.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Esperientzia. Tel. 682-277198.

4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskaerak
- 5.2. Eskaintzak

6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

- Emakume euskalduna eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Autoarekin. Tel. 657-794652. Nerea.
- Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta etxeko garbitzeko. Interna. Tel. 674-713262.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeko garbitzeko. Tel. 636-302237.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 631-498697.
- Neska euskalduna eskaintzen da umeak zaintzeko. Tel. 670-251265.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo gaixoak zaintzeko. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 662-252150.
- Emakumea eskaintzen da orduka nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 626-197217.
- Emakumea eskaintzen da orduka nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 632-030789.
- Emakumea eskaintzen da orduka edo asteburuetan nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 645-366850.
- Neska eskaintzen da uda sasoiari umeak zaintzeko eta dendarri jarduteko. Tel. 638-002368.
- Mutil euskalduna eskaintzen da sukalde-laguntzaile jarduteko. Tel. 618-875007.
- Neska euskalduna eskaintzen da asteburuetan nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 689-391261.
- Bikotea eskaintzen da soziedadeak edo lokalak garbitzeko eta nagusiak zaintzeko. Tel. 651-545260.
- Emakumea eskaintzen da lan egiteko. Tel. 632-836130.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta beste edozertarako. Tel. 631-110716.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Orduka. Tel. 631-010369.
- Emakumea eskaintzen da goizez garbiketarako lanak egiteko eta nagusiak zaintzeko. Tel. 681-065683.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Esperientzia. Tel. 695-804895.

4.2. Langile bila

- Kamarera/o behar da Eibarko taberna batean. Esperientziarekin. Bidali kurrikuluma: davidtubolab@gmail.com
- Kamarerak/roak behar dira Eibarko jatetxe batean. Tel. 667-908392. Alicia.
- Emakume euskalduna behar da umea zaindu eta etxeko lanak egiteko. Tel. 652-658646.
- Emakume euskalduna behar da umea zaindu eta etxeko lanetarako. Tel. 679-918437.
- Kamarera/o behar da asteburu eta gauetarako. tre@euskalnet.net
- Kamarera/o behar da Soruluzeko jailetarako. 943-750030 eta 670-541347. Oscar.
- Eskoldari laguntzaile behar da Eibarko jatetxe batean. Bidali curriculum-a Eibarko 46 posta kutsara.
- Ilea-paintzaile-laguntzaile behar da, estetikako oinarriko ezagutzarekin. Itxura ona eta jendetasuna ezinbestekoa. Tel. 619-928881.

5. Irakaskuntza

5.2. Eskaerak

- Ingeniaritza Mekanikoko 2. mailako ikasleak klase partikularrak behar ditu, Mekanika eta Elektronika ikasgaietarako. Premia handia. Tel. 653-748088.
- Irakaslea behar da 2. Batxilergoko Matematikak eta Ekonomia klaseak emateko. Tel. 652-700114.
- Ingeleseko irakasle partikularra behar da, Batxilergo mailakoa. Tel. 652-700114.

5.2. Eskaintzak

- Ingeniaritza tituludun neska eskaintzen da klase partikularrak emateko. Tel. 670-251265.
- Fisika eta Matematikako klase partikularrak eta umeentzako irakaskuntza teknikak ematen ditut. Gehienez 4 lagunekoa taldeak. Tel. 615-705945. Iratxe.

6. Denetarik

6.3. Galdu/Aurkitu

- Uztailaren 16an makila laga nuen Errekatxuko iturrian. Egurrezkoa, burdinzko puntarekin. Tel. 635-732637.

6.4. Bestelakoak

- Jai-Alai, Ariatza eta Mickey Mouse diskoteketako basoazpikoak eta poxpolo-kaxak erosiko nituzke. Tel. 943-572057.

NEKAZARITZA TRADIZIONALA ETA BABESTUA

ZELETA BARAZKIAK



*Ekoizpen prozesuan
energia berriztagarriak
erabiltzen ditugu*



- Landareen produkzioa
- Laborantza kontrola
- Eskuz eginiko aukeraketa
- Banaketa

• **Ortufik mahaira: Bertako produktuetan erantzunik gertukoena**

Orain Eibarko
BM-n ere bagaude

Ekoizpenaren %100 hazte-zikloa zainduz eta tratamendu kimikoen erabilera saihestuz lortzen dugu

ZELETA BASERRIA • San Migel auzoa / ELGOIBAR • Tfnoa. 609 35 76 19 • www.zeletabaserria.com

Irailaren 1etik 26ra

ESKAINNTZA

- Euskalduntze eta alfabetatze ikastaroak (maila guztiak)
- 3. maila (EGA):
 - Egunero eta astean bitan
 - Egunean 4 orduko ikastaro trinkoa
- Azterketa prestakuntza: **HABEren 1. eta 2. mailak** (Perfilekin homologatuta)
- Titulu ofizialak

IKASTARO BEREZIAK

- Autoikaskuntza: **BOGA programa** (Tutoretzak eta mintzasaiolak)
- Etorkinentzako harrera-ikastaroak (**AISA**)
- EGATik gorakoak: **sakontze, itzulpengintza, Euskaltzaindiaren arauak, 4. maila...**
- Eibarrera
- Mintza-praktika ikastaroak
- Talde bereziak: **jubilatuak, gurasoak ...**
- Ikastaroak enpresetan

TARIFA BEREZIAK:

langabetu, guraso, merkatari,
jubilatuta eta enplegatuentzat.



Bista Eder, 10 -PORTALEA-
euskaltegia@eibar.net

Tfnoa: 943 70 09 12
Faxa: 943 82 00 89



**UDAL
EUSKALTEGIAK**
euskaraz klaseak • clases de euskera

14-15
IKASTURTEACURSO

2014-2015 IKASTURTERAKO MATRIKULA ZABALIK

Udal Euskaltegiak www.udaleuskaltegiak.org

Egin iezaiezu SCHOOL VISUAL TEST-a zure haurrei

Erreflexuen aurkako lente fin eta
apurtezinak dituzten betaurrekoak **97€**

ARRASATE • BEASAIN • BERGARA • DONOSTIA • ERRETERIA • IRUN • ORDIZIA • TOLOSA

kontsulta itzazu zure zentroan kanpainaren ezaugarriak. Ezingo da beste eskaintza batzuetan erabili.

Bidebarrieta, 2 • Tel.: 943 20 05 22
EIBAR

MULTIÓPTICAS
lehena zerbitzu optikoetan